

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1672

AGINDUA, 2024ko martxoaren 27koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2024. urtean gehienez emango diren diru-kopuruak, zehazten baitira laguntza horietako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2024. urterako dagokion aurrekontu-muga.

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen xedea da pertsonak baztertzeko arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonal, sozial eta laboraleko egoerak arintzea, bizitza duinaren garapena bermatzea eta behar adinako baliabide pertsonal, laboral, sozial edo ekonomikorik ez dutenak gizartean erabat sar daitezen sustatzea, eta horren osagaien artean daude gizarte-larrialdietarako laguntzak (aurrerantzean, GLL).

Larrialdietarako laguntzaren kontzeptuaren gakoa da, hain zuzen ere, kanpoko edo ustekabeko arrazoiak tarteko, une jakin batean (aldi baterako) baliabide ekonomikorik ez izatea edo urriak izatea premia larriko egoera bati aurre egiteko. Egoera horiei erantzun egin behar zaie herrialdean dagoen ongizatearen arabera bizi ahal izateko eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarrerak bermatzeko errentaren laguntzen gehieneko muga araberako bizimoduari eutsi ahal izateko.

Ustekabeko gertakari batek eta aldizka dirulaguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdietako egoera ekonomikoei erantzun nahi zaie. Pertsonen bizitzan zehar, egoera jakin batean edo zenbait unetan gerta daitezke egoera horiek. Lehen mailako gabeziak edo eskasiak dakartzaten egoerak ez sortzeko, baliabide aringarri bezala erabiltzen dira GLLak.

Laguntza horiek emateari dagokionez, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 58. artikulua xedatzen du gizarte-larrialdietarako laguntzak gizarte-zerbitzuek benetan premia-egoera dagoela egiaztatu ondoren emango direla.

Era berean, eta abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 138. artikuluen 2. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik, gure autonomia-erkidegoko udalei dagokie gizarte-larrialdietarako laguntzak instruitzea, aitortzea eta ordaintzea, zehatzeko ahala erabiltzea, bai eta GLLen onuradunen jarraipena egitea ere; horretarako, alde aurretik jakin beharko dute zein den baliabide dezaketena urteko muga, betiere aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako berariaz ezarritako guztizko aurrekontu-izendapenen barruan.

Bestalde, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 57. artikulua GLL gisa emandako prestazioen zenbatekoak finkatzeko kontuan hartu beharko diren irizpideak zerrendatzen ditu. Zehazki, 1. paragrafoan jasota dago inola ere gainditu ezin izango den mugetako bat. Muga hori, oro har eta aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako erregelamendu bidez ezartzen diren gehieneko zenbatekoek osatzen dute.

Aurrekoa esanda, adierazi behar da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen dela gizarteratzea gizarte-babeseko zenbait sistema eta politika publikok partekatzen duten helburu bat dela; horien artean dago Gizarte Zer-

bitzuen Euskal Sistema, lehen aipatutako helburua lortzen lagunduko duena, dagozkion xedeen eta egitekoen esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen denez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea, beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta, eta elkarlanean; sistema horren funtsezko helburua da, besteak beste, larrialdi-egoerek eragindako premia pertsonalak eta familiarrak prebenitzea eta horiei erantzutea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13.1.n) artikulua araber, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkio, besteak beste, gizarte-ongizateari eta gizarte-zerbitzuari buruzko egitekoak.

Horiek horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, 41.500.000 euroko ordainketa-kreditu bat dago gizarte-larrialdietarako laguntzetarako, agindu honetan esleituta.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak programari esleitutako urteko baliabideak banatzeko eta udalei transferitzeko prozedura ezartzen du. Baliabideen banaketa honako printzipio hauetan oinarritzen da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan, urtero, GLLen zenbatekoak ordaintzeko behar diren baliabide ekonomikoak egongo dira jasota.

b) Gizarteratzeko Erakundearteko Batzordeak horiek aztertu ondoren, gizarte-zerbitzuetako eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako sailak irizpideak urtero zehaztuko ditu, beharrezko adierazleei begira batez ere, finkatzeko nola banatuko den Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko dagoen dirua autonomia-erkidegoko lurralde historikoen eta udalerrien artean.

c) Erreferentziako irizpideak aplikatzeko, udal bakoitzari dagokion gehieneko aurrekontua finkatuko da, eta horren berri emango da EHAAr urtero argitaratuko den agindu baten bitartez.

d) Erreferentziako irizpideen aplikazioan oinarrituta, udal bakoitzari dagokion aurrekontu-muga finkatu ondoren, udal bakoitzari esleitutako zenbatekoa transferituko zaio. Transferentziak hiru hilean behin egingo dira, eta bi alderdiak batera egin ahal izango dira, premia-adierazleei erantzuten dien zatia eta, zenbatekoak jakin ondoren, aurreko ekitaldiko GLLen emakida-adierazleei erantzuten dien zatia.

e) Eusko Jaurlaritzan aurrekontu-ekitaldia ixten denean, udal bakoitzari dagozkion kopuru guztiak erregulatu beharko dira behin betiko, aurrekontu-ekitaldi horretan laguntzak emateko benetan hartutako ebazpenetan oinarrituta, eta, horretarako, udalek bidalitako dokumentazioa kontuan hartuta.

GLLetara bideratutako baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak banatu behar dizkie udalei, salbu eta udalek beste prozedura bat adostu badute dagokien foru-aldundiarekin edo mankomunitateen bidez, abenduaren 22ko 14/2022 Legearen seigarren xedapen gehigarriarekin bat etorriz. Lege horrek aukera ematen die aldundiei edo udalaz gaindiko entitateei laguntzak zuzenean ordaintzeko, udalek partzuergo, mankomunitate edo bestelako formulen bidez partekatutako kudeaketa-formuletara jo badute, edo aldundiak bere gain hartutako prestaziora jo badute.

Horregatik guztiagatik, eta Lan eta Enplegu Sailak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren esparruan, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailak gizarte-zerbitzuen esparruan dauzkan eskumenak baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUGU:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 202ko ekitaldirako gizarte-larrialdietarako laguntzetan (GLL) bildutako berariazko gastu bakoitzari orokorrean eman beharreko gehieneko zenbatekoak finkatzea eta laguntza horiek emateko esleitutako kredituak hainbat udalerriren artean banatzeko irizpideak ezartzea. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari aurtengogokion aurrekontu-muga zehazten da.

2. artikulua.– Urteko gehieneko zenbatekoak.

1.– 2024rako, honako hauek dira gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko zenbatekoak, bizikidetzaren unitate bakoitzeko (aurrerantzean, BU), aurreko artikuluan aipatutako berariazko gastu bakoitzera bideratuak:

1.1.– Ohiko etxebizitza edo bizitokia izateko eta mantentzeko behar diren gastuak:

a) Alokairu-gastuengatik:

a.1.– Errentari bakarreko etxebizitzaren kasuan, edo GLL eskatu duen BU bakarrak etxebizitza koerrentatu edo azpieroerrentatu bada, hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezin izanogo du gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, koerrentan edo azpieroerrentan ordaindutako prezioaren % 70.

a.2.– Etxebizitza koerrentatu edo azpieroerrentatua bada, ez dira bi eskabide baino gehiago onartuko, indarreko araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetzaren unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzat hilean 150 euro emango da gehienez, eta bien artean ezin izango dute gainditu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

a.3.– Etxebizitzaren ostatu- edo apopilo-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin daitezke, lehen esandakoaren arabera, eta hilean 150 euroko laguntza emango da gehienez.

a.4.– Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 300 euro emango da gehienez. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.

b) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik, hilean 300 euro emango da gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.

c) Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-hornidura batzuek eragindako energia-gastuengatik, urtean 1.500 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 750 euro gehienez.

d) «Linea zuriko» etxetresna elektrikoaren eta altzarien gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuengatik, urtean 1.850 euro gehienez. Bi BU baldin badira, bakoitzari urtean 925 euro gehienez.

f) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko behar diren gastuengatik, urtean 900 euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450 euro gehienez. Kontzeptu honek honako gastu hauek hartzen ditu barnean: ura, zaborrak, estolderia, landa- zein hiri-eremu-koetako ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak, eta jabekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.

g) Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako ezohiko gastuengatik, hala nola fidantza, horniduretan alta ematea, egokitzapena eta beste batzuk, urtean gehienez 1.800 euro. Bi bizikidetzaren kasuan, gehienez 900 euro urtean.

1.2.– Bizikidetzaren unitateko kide baten edo gehiagoren oinarrizko premiei dagozkien gastuengatik, hala nola sistema publikoek estaltzen ez dituzten jantziak, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-laguntza, gehienez 2.500 euro urtean.

1.3.– Aurretiko zorpetze-gastuengatik, gehienez 3.000 euro urtean. Bi bizikidetzaren kasuan, urtean 1.500 euroraino.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, 1.1 eta 1.2 apartatuetan aipatutako kontzepturen batek eragindako aurretiazko zorpetze-gastuengatik urteko gehieneko zenbatekoek ezin izango dituzte gainditu, kasu bakoitzean, aipatutako paragrafoetan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoak.

2.– Nolanahi ere, GLLak jasotzea, artikulua honetako 1.1 apartatuan aipatzen diren kontzeptuetan (ohiko bizitokia eta mantenua izateko beharrezko gastuak), ez da bateragarria etxebizitzako prestazio osagarriarekin (aurrerantzean, EPO).

Era berean, 1.1 a) apartatuan aipatzen den kontzeptuan (alokairu-gastuak) GLLak jasotzea bateraezina da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legean (aurrerantzean, EPE) etxebizitza legez okupatzeko aurreikusitako eskubide subjektiboa betetzera bideratutako etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko apirilaren 26ko Aginduan (zeinak arautzen baititu Gaztelagun programako etxebizitza alokatzeko laguntzak) aurreikusitako laguntzekin eta 2024ko ekitaldian aurreikus daitezkeen ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko etxebizitza librea alokatzeko beste laguntza batzuekin.

3.– Eskabide bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, ehuneko bat aplikatuko da, eskatzailearen eta haren bizikidetzaren unitateko gainerako kideen diru-sarreraren arabera kalkulatu, bai eta unitate hori osatzen duten kideen guztizko kopuruaren arabera ere, artikulua honetan kontzeptu bakoitzerako ezartzen den gehieneko zenbatekoaren gainean, edo benetako gastuaren zenbatekoaren gainean, baldin eta gastu hori kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbateko hori baino txikiagoa bada, Gizarte-larrialdietarako Laguntzak arautzeko Dekretuaren 10.2 artikuluan adierazitakoaren arabera. I. eranskinean, gehieneko errenta bermatua eta kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoaren ehuneko aplikagarria kalkulatzeko modua jasotzen da.

4.– Kasu partikular bakoitzean aplika daitezkeen zenbatekoa udal eskudunak murriztu beharko du dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta; kasu horretan, eskatzaile guztien eskariei modu berean erantzuteko udalaren ustez nahikoa den ehuneko negatiboa murriztu beharko da kontzeptu bakoitzarengatik eman daitezkeen gehieneko zenbatekoa.

3. artikulua.– Eskabide-metaketa eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eska ditzaketan bizikidetzaren unitateen gehieneko kopurua.

Etxebizitza berean bizi diren bizikidetzaren unitateei gehienez ere gizarte-larrialdietarako bi laguntza emango zaizkie.

GLLen bi eskabide baino gehiago metatzen badira, eskabidearen antzintasun-ordenaren arabera erantzungo da, salbu eta gizarte-zerbitzuek bestelako irizpide bat ematen badute, gizarte-txostenean adierazitakoaren arabera.

4. artikulua.– Kredituak banatzeko irizpideak.

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak estaltzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak honako adierazle hauen arabera finkatuko dira 2024rako:

a) 2023ko urriaren 31ko premia-adierazleak.

b) 2023ko ekitaldiko GLLen emakida-adierazleak, 2023ko abenduaren 31ra arteko datuak jasotzen dituztenak.

2.– Kredituei dagokienez, lehenengo puntuko a) apartaturako 37.000.000 euro esleitu dira, eta lehen puntuko b) apartaturako 4.500.000 euro. Kreditu horiek agindu honen II. eranskinean ezarritakoaren arabera banatuko dira.

3.– Premia-adierazleei erantzuten dieten banaketa-irizpideak honako parametro hauen arabera finkatuko dira 2024rako:

– Udalerrian, 2023ko urriaren 31n diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten unitateen kopurua.

– Udalerrian, 2023ko urriaren 31n Lanbiden inskribatuta dauden baina diru-sarrerak bermatzeko errentarik edo bestelako prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopurua.

4.– Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, premia-adierazleei dagokienez, 400 biztanle baino gutxiagoko udalerriei udalerrri horiei guztira legokiekeen zenbatekoaren batezbestekoaren zenbateko baliokidea bermatzen zaie gizarte-larrialdietarako laguntzen programa egikaritzeko.

5.– GLLen emakida-adierazleei erantzuten dieten banaketa-irizpideak honako parametro hauen arabera finkatuko dira 2024rako:

– 2023ko ekitaldian udalerrian esleitutako zenbatekoa.

– 2023ko ekitaldian udalerrian justifikatutako zenbatekoa.

– Udalerraren biztanle-kopuruaren araberako tamaina; udalerrri txikitat joko da 20.000 biztanle baino gutxiago dauzkana, eta udalerrri handizat, berriz, 20.000 biztanle edo gehiago dauzkana.

Banatzeko kopurua metodo honen arabera kalkulatu da:

a) 2023ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren berdina edo txikiagoa justifikatu duten udalerrien kasuan, zenbatekoa zero izango da.

b) Udalerrri txikietan, zenbatekoa hau izango da: 2023ko ekitaldian justifikatutako zenbatekoaren eta udalerrrian esleitutakoaren arteko aldearen % 66, 2023ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gehienez ere.

c) Udalerrri handietan, zenbatekoa hau izango da: 2023ko ekitaldian justifikatutako zenbatekoaren eta udalerrrian esleitutakoaren arteko aldearen % 50, 2023ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gehienez ere.

Aurrekoa gorabehera, koefiziente zuzentzaile bat aplikatuko da GLLen emakida-adierazleentzat gordetako zenbateko osoa banatu ahal izateko, soberakinik gera ez dadin eta partida handitu

beharrik izan ez dadin, betiere udalerriri banatutako kopuruak 2023ko ekitaldian esleitutako zenbatekoaren % 30 gainditzen ez badu.

5. artikulua.– Aurrekontu-mugak.

Premia-adierazleei buruzko 4. artikuluan adierazitako irizpideak aplikatuta, 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko udal bakoitzari dagozkion gizarte-larrialdietarako laguntzen programa gauzatzeko aurrekontu-mugak ezarri dira, eta agindu honen II. eranskinean daude.

6. artikulua.– Udalaz gaindiko beste entitate batzuen bidezko banaketa.

Foru-aldundira edo partzuergoen, mankomunitateen edo gizarte-larrialdietarako laguntzeara bideratutako baliabide ekonomikoak banatzeko beste formula batzuen bidez partekatutako kudeaketa-formuletara jotzen duten udalek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari jakinarazi beharko diote, udalaz gaindiko entitate horiei udal bakoitzari esleitutako zenbatekoak transferitzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte-larrialdietarako Laguntzak arautzeko Dekretuaren 33. artikuluan aipatzutako datuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema araututa eta funtzionamenduan ez dagoen artean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2004ko urriaren 8ko Aginduan ezarritako moduan bidaliko dira, zeinaren bidez argitaratu baitzen gizarte-larrialdietarako laguntzen eska-bide-eredu berria eta arautu baitzen prestazio horiei buruzko dokumentazioa euskarri informatikoan bidaltzeko modua (2004ko azaroaren 17ko EHAA, 220. zk.); bestela, aipatzutako aginduan ezarritakoa ordezkatzeko duen euskarri informatiko estandarizatuaren bidez bidaliko dira, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak zehazten duen moduan, datuen edukiari buruz aipatzutako 33. artikuluan eskatzen diren eskakizunak beteta, betiere.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 27a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

I. ERANSKINA

GEHIENEO ERRENTA BERMATUA KALKULATZEKO ZENBATEKOAK ETA KONTZEPTU BAKOITZEKO GEHIENEO ZENBATEKOAREN EHUNEO APLIKAGARRIA

I.1.– Gehieneko errenta bermatua kalkulatzeko zenbatekoak.

Bizikidetz-unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua (GEB) oinarrizko zenbatekoari, bizikidetz-unitateko kide bakoitzeko banakako osagarriari eta bizikidetz-unitatearen ezaugarriari lotutako osagarriari dagozkien zenbatekoen baturak zehazten du.

Oinarrizko zenbatekoa, hilerro erreferentziatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak zehaztuko du.

I.2.– Kontzeptu bakoitzeko gehieneko zenbatekoaren ehuneko aplikagarria.

Bizikidetz-unitate espezifiko baterako gehieneko zenbatekoaren ehunekoen taula egiteko, nahikoa da 14/2022 Legearen 32., 33. eta 34. artikuluen arabera bizikidetz-unitateari dagokion gehieneko errenta bermatua (GEB) kalkulatzeko eta honako formula hau aplikatzea:

BU Urteko diru-sarreraren muga, GEBen arabera, eurotan.

Gehieneko ehuneko aplikagarria	GEB
x %	= Biribildu $((200-x)*GEB*12/100;2)$

Non x = 100, 99, 98, ..., 50.

2024ko apirilaren 9a, asteartea

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE HISTORIKO ETA UDAL BAKOITZARI 2024.
URTERAKO DAGOKION AURREKONTU-MUGA

ARABA

Udalerrria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Agurain/Salvatierra	102.566,00
Alegria-Dulantzi	57.250,93
Amurrio	213.397,97
Añana	2.152,00
Aramaio	7.765,10
Armiñón	2.152,00
Arraia-Maeztu	8.065,77
Arratzua-Ubarrundia	5.379,00
Artziniega	44.107,67
Asparrena	25.560,75
Ayala/Aiara	30.483,00
Baños de Ebro/Mañueta	2.152,00
Barrundia	4.175,21
Berantevilla	3.945,00
Bernedo	4.662,00
Campezo/Kanpezu	14.345,00
Elburgo/Burgelu	5.738,00
Elciego	11.476,00
Elvillar/Bilar	3.586,00
Erriberagoitia/Ribera Alta	6.455,00
Harana/Valle de Arana	2.084,10
Iruña Oka/Iruña de Oca	55.587,00
Iruñaiz-Gauna	2.926,43
Kripan	2.041,00
Kuartango	3.228,00
Labastida/Bastida	32.635,00
Lagrán	2.041,00
Laguardia	18.204,98
Lanciego/Lantziego	14.704,00
Lantarón	10.400,00
Lapuebla de Labarca	15.779,00
Laudio/Llodio	322.483,28
Legutio	50.735,48
Leza	3.958,29
Moreda de Alava/Moreda Araba	3.494,88

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Navaridas	2.041,00
Okondo	16.497,00
Oyón-Oion	70.649,00
Peñacerrada-Urizaharra	3.067,54
Ribera Baja/Erribera Beitia	15.421,00
Samaniego	3.945,00
San Millan/Donemiliaga	3.945,00
Urkabustaiz	30.846,48
Valdegovía/Gauea	16.202,61
Villabuena de Alava/Eskuernaga	2.459,93
Vitoria-Gasteiz	5.654.698,84
Yecora/lekora	2.510,00
Zalduondo	2.041,00
Zambrana	6.814,00
Zigoitia	10.759,00
Zuia	15.421,00
Guztira Araba/Álava	6.953.035,23

GIPUZKOA

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Abaltzisketa	2.041,00
Aduna	2.152,00
Aia	18.066,74
Aizarnazabal	11.270,07
Albiztur	2.598,54
Alegia	29.300,71
Alkiza	2.986,69
Alzaga	2.041,00
Altzo	3.945,00
Amezketeta	12.128,19
Andoain	210.359,68
Anoeta	30.078,84
Antzuola	24.836,02
Arama	2.041,00
Aretxabaleta	83.242,48
Arrasate/Mondragon	331.486,18
Asteasu	14.051,92
Astigarraga	82.555,07
Ataun	14.710,09
Azkoitia	169.620,35

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Azpeitia	240.387,17
Baliarrain	2.041,00
Beasain	164.889,94
Beizama	2.041,00
Belauntza	2.041,00
Berastegi	5.021,00
Bergara	207.765,56
Berrobi	11.067,29
Bidania-Goiatz	5.960,40
Deba	49.849,00
Donostia / San Sebastián	2.888.680,26
Eibar	567.806,69
Elduain	2.152,00
Elgeta	9.413,85
Elgoibar	209.494,12
Errenteria	788.192,18
Errezil	7.172,00
Eskoriatza	58.746,72
Ezkio-Itsaso	4.678,57
Gabiria	3.228,00
Gaintza	2.041,00
Gaztelu	2.041,00
Getaria	30.391,79
Hernani	327.193,66
Hernialde	2.041,00
Hondarribia	188.973,61
Ibarra	54.344,20
Idiazabal	19.743,38
Ikaztegieta	8.966,00
Irun	1.065.112,00
Irura	22.235,00
Itsasondo	13.979,81
Larraul	2.152,00
Lasarte-Oria	256.608,85
Lazkao	54.353,26
Leaburu	4.715,10
Legazpi	108.187,60
Legorreta	20.415,32
Leintz-Gatzaga	2.041,00
Lezo	97.434,11
Lizartza	8.248,00

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerría	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Mendaro	35.333,96
Mutiloa	2.041,00
Mutriku	70.662,41
Oiartzun	107.928,19
Olaberria	8.831,23
Oñati	119.904,12
Ordizia	169.424,47
Orendain	2.041,00
Orexa	2.107,97
Orio	83.304,84
Ormaiztegi	15.264,34
Pasaia	399.922,06
Segura	9.976,46
Soraluze / Placencia de las Armas	82.483,31
Tolosa	288.556,89
Urnieta	87.125,95
Urretxu	88.743,98
Usurbil	73.518,00
Villabona	90.373,00
Zaldibia	19.366,00
Zarautz	235.032,87
Zegama	13.170,69
Zerain	2.041,00
Zestoa	60.959,34
Zizurkil	34.297,67
Zumaia	105.903,92
Zumarraga	201.414,96
Guztira Gipuzkoa	10.981.086,65

BIZKAIA

Udalerría	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Abadiño	131.327,87
Abanto y Ciervana-abanto Zierbena	230.039,22
Ajangiz	2.152,00
Alonsotegi	71.367,00
Amorebieta-Etxano	312.724,47
Amoroto	2.152,00
Arakaldo	2.152,00
Arantzazu	5.092,63
Areatza	15.854,51

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Arrankudiaga	13.278,78
Arratzu	2.598,54
Arrieta	8.607,00
Arrigorriaga	211.176,15
Artea	10.543,27
Artzentales	16.855,00
Atxondo	18.874,42
Aulesti	3.945,00
Bakio	41.600,00
Balmaseda	219.394,08
Barakaldo	2.410.271,65
Barrika	21.517,00
Basauri	890.739,57
Bedia	19.905,04
Berango	76.387,00
Bermeo	288.333,00
Berriatua	15.114,15
Berriz	72.089,63
Bilbao	8.001.612,00
Busturia	28.475,34
Derio	83.748,84
Dima	15.779,00
Durango	463.302,51
Ea	12.991,30
Elantxobe	5.738,00
Elorrio	84.706,07
Erandio	561.451,23
Ereño	2.152,00
Ermua	325.830,62
Errigoiti	5.844,50
Etxebarri	164.140,72
Etxebarria	9.571,40
Forua	11.873,86
Fruiz	7.531,00
Galdakao	418.303,12
Galdames	12.946,92
Gamiz-fika	15.062,00
Garai	2.598,54
Gatika	16.497,00
Gautegiz Arteaga	7.890,00
Gernika-Lumo	238.000,51

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Getxo	1.303.494,78
Gizaburuaga	2.152,00
Gordexola	21.621,04
Gorliz	88.637,51
Güeñes	162.730,81
Ibarrangelu	12.167,62
Igorre	79.080,35
Ispaster	5.738,00
Iurreta	69.756,67
Izurtza	3.454,40
Karrantza Harana/Valle de Carranza	55.945,00
Kortezubi	2.869,00
Lanestosa	5.379,00
Larrabetzu	26.681,91
Laukiz	10.759,00
Leioa	546.354,95
Lekeitio	90.216,05
Lemoa	84.139,53
Lemoiz	26.897,00
Lezama	32.842,16
Loiu	22.593,36
Mallabia	13.725,21
Mañaria	5.462,69
Markina-Xemein	73.973,74
Maruri-jatabe	6.455,00
Meñaka	4.303,00
Mendata	2.510,00
Mendexa	2.882,29
Morga	5.379,00
Mundaka	19.724,00
Mungia	267.533,00
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	5.454,01
Murueta	2.849,22
Muskiz	166.550,33
Muxika	19.089,42
Nabarniz	2.869,00
Ondarroa	149.440,73
Orozko	36.221,00
Ortuella	230.613,05
Otxandio	22.069,55
Plentzia	59.173,00

2024ko apirilaren 9a, asteartea

Udalerria	2024ko agindua, guztira (eurotan)
Portugalete	897.635,00
Santurtzi	1.156.998,41
Sestao	925.746,86
Sondika	70.414,83
Sopelana	192.131,52
Sopuerta	44.494,11
Sukarrieta	3.586,00
Trucios-Turtzioz	11.835,00
Ubide	3.426,54
Ugao-Miraballes	72.657,62
Urduliz	68.091,11
Urduña/Orduña	98.623,84
Usansolo	43.517,88
Valle de Trapaga-Trapagaran	213.478,55
Zaldibar	58.572,23
Zalla	214.540,69
Zamudio	56.616,74
Zaratamo	30.926,55
Zeanuri	12.291,21
Zeberio	16.230,81
Zierbena	21.877,00
Ziortza - Bolibar	3.229,00
Guztira Bizkaia	23.565.878,12

EAE

Guztira EAE	41.500.000
-------------	------------